

NEGUAK HARRAPATUKO ZAITU

Negua beti izan ohi da animalientzat oso garai gogorra, janari gutxi dago eta hotz egiten du!

Goazen urtaroetatik barrena bizi irautera, baina kontuz... neguak harrapatu gabe!

Materialak

Baloi, landare edo bestelako objektu bat eskuz esku igaroko dena, *denbora* adieraziko duen objektu sinbolikoa izango da.

Prozedura

Ikasleak borobil zabal batean ipiniko dira.

Ikasle bat erdian begiak itxita, hau *urtaroen zaindaria* izango da.

Inguruan dauden ikasleak, objektua eskuz esku igarotzen hasiko dira, ikasle hauek ingurunean urtaroetan zehar bizitzen dauden bizidunak izango dira eta *denbora* eskuz esku igaroko da.

Urtaroen zaindaria ordenean urtaroak esaten joango da (udaberria, uda, udazkena eta... negua) nahi duen erritmoan, baina NEGUA! esaten duenean, *denbora* eskuan daukan bizidunak lozorroan sartu beharko du eserita, ikasle honek jada jokoan ez du parte hartuko.

Jokoak jarraitu egingo du bizidun bat soilik geratu arte zutik.

Gidoia eta girotzea

Jokoa dinamizatuko duenak hasieran kontestuan sartu beharko ditu ikasleak.

- Ba al dakizuen negua oso garai latza dela bizidunentzat?
- Atsegin al duzue negua? Zer dago neguan ugari? Hotza!

- Nola dakigu guk negua noiz datorren? Egutegiagatik.
- Ba al zenekiten bizidunek badakitela negua nozi datorren inongo egutegirik erabili gabe?
- Bizidun askok negu hotza igarotzeko, aurrez udaberrian pil bat jaten dute, potolo potolo egiten dira eta negu osoa lotan igarotzen dute. Honi lozorroa deritzo.
- Ba al dakizute zein animalia diren lozorroa egiten dutenak? Marmota, hartza, sagutxoak...

